

erdiko kaira

Literatura

Idazteko ez da gauza handirik behar: bi esku, bi begi eta gogoia. Mina baten eztrandak eramane zituen Samir Tahhanen eskuak eta begiak. Idazteko gogoia, grina, ez. Eta horregatik, esku-begien faltan, arimarekin eskribitzen du. Jarraian datorren artikulua ere hala idatzi du Tahhanek. Bizitzaren beltzak eta zuriak kontatu ditu ARGIArentzat, hitz lauz, apaindurarik gabe.

Alepoko poeta

SAMIR TAHHAN

SIRIAN, Eufrates ibaiertzean jaio nintzen, Irakeko mugatik oso gertu. Nire aita aduanako polizia zen eta bere lanagatik bi urtean behin tokiz aldatu behar izaten genuen, Siriako muga ezberdinetara beti. Greziar katolikoak ginenez, Frantziskotarren eskolan ikasi nuen, Lur Saindua ikastetxean, hain zuzen. Hezkuntza benetan bikaina jaso nuen eta 18 urte bete orduko, arabiera, frantsesa eta ingelesa primeran nekizkien.

Gazte-gaztetatik hasi nintzen poesia eta antzerkia idazten. Gero Damaskoko Unibertsitatera ingeles literatura ikastera joan nintzen, baina fakultateak oso maila apala

zuen. Frantziskotarrekin irakurritan nituen jada Shakespeare, Eyre, Bronte, etab.

Libanora joan nintzen gero, garai haietako “Ekialdeko Paris”-era. Jende guztiak zekien frantsesez, antzerkiaz, nazioarteko musikaz... Huraxe izan zen europar kulturarekin nire lehen kontaktua eta orduan erabaki nuen Europara joatea.

Espainiara joan nahi nuen, nire eskola kide askok hara jo baitzuten. Gainera, garai hartan merkea zen bizitza han. Dena den, zerbitzu militarra egitea gomendatu zidaten, ezinbestekoa baitzen pasaportea eskuratzeke. Ingeniari militarren sailean aritu nintzen han, mina eta lehergailuen espezia-



Sirian jaio zen Samir Tahhan, Eufrates ibaiaren ertzean, Irakeko mugatik gertu. Aduanako polizia zuen aita, eta horregatik, bi urtean behin tokiz aldatu beharrean izaten ziren familiako kideak. Sendia greziar katolikoa du, eta Frantziskotarren eskolan jaso zuen lehen hezkuntza. 18 urte betetzerako arabiera, ingelesa eta frantsesa primeran menderatzen zituen.

litatean. Golanera bidali ninduten, Israelen okupatutako lurraldera. Eraso txikiak burutzen genituen han israelarrak pixkana ahultzeko. Bi urte eman nituen, pertsonen kontrako lehergailuen artean. Baina horietako bat manciatzen ari nintzela eztanda egin zuen. Fabrikazio akatsa zuen. Ez da harriztekoa, 1941ean Errusian egindakoa zen eta. 23 urte nituen eskuak eta begiak galdu nituenean.

Barraquer oftalmologoa ezagun askoa zen. Abeslari famatu bati ikusmena berreskuratu ondoren, egunkari guztiek sendagile katalanaz hitz egiten zuten. Oso famatua egin zen arabiar munduan. Espainiara jo eta siriar jatorriko gizon batekin egin nuen topo Madrilen. Siria-ko enbaxadan lan egiten zuen eta espainiar batekin ezkondu zegoen. Harek esan zidan Barraquerrek ospe handia izan arren, onenak Madrilen zeudela. Bi lagun ei ziren: Castroviejo eta Domínguez. Eurengana jotzeko gomendatu zidan. Frantsesez ondo nekenez, hilabeteko epean gaztelaniaz mintzatzeko ia gai nintzen. Dena den, Rubio erietzeko moja gehienek frantsesez hitz egiten zuten. Bigarren aldiz jaio nintzen han, hain zen atsegina eta

Kasuak izeneko liburua argitaratu nuen duela urte batzuk. Deskribapen eta elkarriketarik gabeko eleberria da. Sorbonako unibertsitateko irakasle batek literatura genero berri bat asmatu dudala dio

ona bertan jaso nuen harre-ra. Hori dena duela hiru urte Sirian argitaratu nuen liburu batean deskribatu nuen. Gaztelaniara itzuli nahiko nuke jende honenganako omenaldi gisa. Askok izan zuen nire etorreraren berri, telebista eta prentsan oihartzun handia jaso baitzuen siriar gazte haren dramak.

Gauzak horrela, jende ugari etortzen zen bisitan. Behin, adineko emakume batek mahats-mulko bat ekarri zidan. “Etxeko patioan hazitakoak dira, eta nire semea hil zenetik ez diot inori jasotzen utzi. Baina telebistan ikusi zintudanean, nire semeak mulko bat eramango zizukeela pentsatu nuen”, esan zidan emakumeak.

25 urteak Espainian bete nituen. Egun hartan neska batek kutxa bat oparitu zidan. “25 opari daude barruan, lehenagotik elkar ezagutu izan bagenu, urtero

eman izango nizkizunak” esan zidan. Ez zait inoiz ahaztuko.

Niretzat, erietxe xume hura paradisu zen.

Espainian lau hilabete eman eta gero, Adolfo Domínguez oftalmologoa zera esan zidan, “itxaropena” poeten hitza baino ez zela; zientzialariek probabilitateaz hitz egitea nahiago zutela. Nire kasuan, milioi batetik baka-rrekoa ei zen.

“10 edo 12 ebakuntza egingo dizkizugu begietatik metraila ateratzeko. Gero kornea berri bat jarriko dizugu”, esan zidaten medikuek. Antza, kornea natural bat onartzeko oso aukera urriak ziren eta artifizial batekin lehen-dabiziko aldiz probatuko zutela esan zidaten.

Eta ikusten hasi nintzen, miraria izan zen! Telebistak horren berri eman zuen eta berehala mundu osoko adituak etorri ziren kornea berritzaile hura zertan zetzan jakiteko.

Nire gela izan zen ikusi nuen lehendabiziko irudia; lehenengo pertsona, Tole-dokoa zen Frantziska serora, gauzez zain-tzen ninduen moja.

Siriara bueltatu behar nuen. Baina prote-sia behin-behinekoa zen eta urtebeteren

buruan Espainian aldatu behar zidaten medikuek. Nik ez nuen Espainiatik joan nahi eta enbaxadoreari bertan gelditzeko baimena eskatu nion. Beldur nintzen, behin Sirian, Damaskok Espainiara bueltatzeko baimena ez ote zidan ukatuko. Gainera, gastuekin lagunduko zidaten ezagun asko nituen Madrilén, hots, Blanca de Castellanosen markesa, Jaime bere senarra, osasun saileko langile zen Carmen Cabes-tany... Denak laguntzeko prest zeuden. Azkenean Siriara bueltatzera behartu ninduten. Eta, espero bezala, Espainiara itzultzeko bisa ukatu zidan Damaskok. Eta ikusmena betirako galdu nuen.

Hiru hilabeteko atzerapenez Espainiara bueltatzea lortu nuen, alferrik. “Pasaporteaz zigilua ukatu dizun funtzionarioak betirako itsutu zaitu”, esan zidan Domínguez sendagileak. Itsu eta eskurik gabe bizitzen ikastea gomendatu zidan medikuak.

Sirian bueltan, frantziar literaturako ikasle batekin ezkondu nintzen. Handik bederatzirtera, “ilargirik gabeko gau” batean, ondasunak bere izenean jarri nituen. Gerorako ospa egiteko esan zidan, etxea eta barruko guztia berea zela eta. Espainian nengoe-la emakumei buruzko txiste bat entzun ohi zen: “Gaseosarekin gertatu bezala, bi emakume mota daude: *Casera* eta *Revoltosa*. Nirea bigarren motakoa zen.

1986. urtea zen eta amaren etxera joan nintzen, berarekin eta nire anaiarekin bizitzera. Ama hil zenetik Marot anaiak eta biok liburuak idatzi eta publikatzen eman dugu bizitza.

Dagoeneko mota anitzeko 12 liburu plazaratu ditugu: poesia, eleberria, herri ipuinak, bai eta arabiera ikasteko metodo bat ere. *Kasnak* izenburuko liburua argitaratu nuen duela urte batzuk. Deskribapen eta elkarrizketarik gabeko eleberria da. Gai zentrala nire emaztearen eta bion artean gertatutakoa da. Jende desberdina

horren inguruan mintzo da lehendabiziko pertsonan, eta nik euren testimonioa jaso besterik ez dut egiten. Sorbonako Unibertsitateko irakasle batek literatura genero berri bat asmatu dudala dio. Esan nahi nuen zera da, norbaitek bere iritzia ematen dizunean, aldi berean bere barneko zerbaite ematen dizula, berak egoera horretan egingo lukeena. Gai nagusi bat egon arren, partehartzaile bakoitzaren nortasuna jasotzen duen kaleidoskopia da eleberria.

Gero *Arima erratuak* argitaratu nuen. Darwinnek dio piztiak ditugula arbaso, eta arrasto horiek bilatu ditut liburu honetan.



Alepo (Siria) munduko hiririk zaharrenetarikoa da. Han bizi da orain Samir Tahhan, munduan barrena hainbat buelta eman ondoren. “Suleimanie auzoan inoiz bazaudete, galdetu nitaz Alepoko babarik onenak dauzkan saltzaileari. –dio biografia labur honen bukaeran– Lagun mina dut eta badaki non bizi naizen”. Zure esku dago orain, bisita.

Hirugarren begia koloreen hiztegi bat da. Nola helarazi koloreak itsu bati? Kolore bakoitzak sentimendu bana du, beraz, sentimenduak dira itsu batek koloreak ikusteko tresna.

Horiexek dituzue nire hainbat liburuaren inguruko azalpenak. Gehientzako inspirazioa Espainian aurkitu nuen.

Egun, Alepon bizi naiz. Suleimanie auzoan inoiz bazaudete, galdetu nitaz Alepoko babarik onenak dauzkan saltzaileari. Lagun mina dut eta badaki non bizi naizen. ■